

OINARRIAK

ENPRESA PROIEKTU BERRIAK SORTZEKO LAGUNTZAK

EKINTZAILEENTZAKO LAGUNTZEN DEIALDIAREN
ESPARRUAN

ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKIKO EKINTZETARAKO
LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA
(2014ko ABUZTUAREN 25eko EHAA)

TXORIERRI-ERANDIO ESKUALDEKO
ENPLEGU PLANA

Diru-laguntza emanda:



**Diru-laguntzen % 50 finantzatzen, EAEko
2007-2013 EGF Programa Operatiboaren
barruan.**



Gizarte Funtsak zure
etorkizunean inbertitzen du
El Fondo Social Europeo
invierte en tu futuro

Sustatzaileak:



TXORIERRIKO MUNDUARRIATEA



Kudeatzailea:



Indice

1.	Zioen Azalpena	3
2.	Laguntzen xedea	3
3.	Ezar daitekeen araudia	3
4.	Laguntzen onuradunak	4
5.	Laguntzaren zenbatekoa	5
6.	Eskabideak, dokumentazioa eta horiek aurkezteko epea	5
7.	Laguntzak emateko prozedura	5
8.	Laguntzak ordaintzea	6
9.	Laguntzaren justifikazioa	6
10.	Onuradunen betebeharrak	6
11.	Diru-laguntza aldatzea	7
12.	Beste diru-laguntza edo laguntza batzuekiko bateragarritasuna	7
13.	Ez-betetzeak eta emandako diru-laguntzak itzultzea	7
14.	Aurrekontua esleitzea	8
15.	Programaren indarraldia eta garapena	8
16.	Baliabideak	9
17.	Datu pertsonalak babestea Protección de datos de carácter personal	9
18.	Emandako diru laguntzak argitaratea	9

1. Zioen Azalpena

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak (sei udalerrri hauek osatzen dute: Deriok, Larrabetzuk, Lezamak, Loiu, Sondikak eta Zamudiok) eta Erandioko Udalakeuren Behargintzen bitartez (EGAZ Txorierri eta Erandioko Behargintza) Txorierri eskualdean aberastasun ekonomikoa eta soziala sortzea sustatzen dute, eskualdea inbertitzeko eta erakunde eta saltoki berriak sortzeko eta hazteko leku erakargarri bihurtzeko asmoz, enplegurako aukerak hobetze aldera.

Azken urteotan dugun krisi ekonomikoro korrekoreko egoeran, dinamismo ekintzailea ezinbesteko faktorea da hazkunde ekonomikoa eta aurrerapena bultzatzeko, era horretan enplegu- eta aberastasun-aukera berriak sor daitezten. Horregatik, guztiz beharrezkoa da beren proiektuarekin banaka eta sozialki konprometituta dauden ekintzaileei, modu integral batez, laguntzea prozesu ekintzailearen fase guztietan.

Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak 2014ko uztailaren 30en emandako ebazpenaren bidez (abuztuaren 25eko 159 zenbakiko EHAO), ekintzaileentzako laguntzen deialdia argitaratu zen.

Deialdi honek 2014ko ekitaldian enpresa-proiektuen sustatzaileei, eman beharreko diru-laguntzen oinarri arautzaileak ezartzea du xedetzat: Negozio-idea zehatz bat duten ekintzaileek enpresa-proiektu berriak abian jar ditzaten bultzatzeko laguntzak, betiere ekintzaileentzako tokiko proiektuen esparruan. (ENPRESA PROIEKTU BERRIAK ABIAN JARTZEKO LAGUNTZAK)

Oinarri hauen bidez, laguntza horietarako sarbidea izateko eskaerak jasotzeko epea irekitzen da.

2. Laguntzen xedea

Oinarri hauen babesean, diru-laguntza jaso ahal izango dute negozio-idea bat aztertu eta garatzeko, edozein jardura-esparrutan eta arduraldi eskusiboko erregimenean, 4. artikuluan (Laguntzen Onuradunak) aurreikusitako baldintzak betetzen dituzten sustatzaileek, betiere EGAG Txorierriren (Behargintza Txorierri, SL) tokiko laguntza- eta/edo tutoretza-proiektuetan parte hartzen badute.

Oinarri hauen babesean egiten diren jarduerak gutxienez 3 hilabete iraungo dute eta urriaren 30ean abiarazi beharko dira.

3. Ezar daitekeen araudia

Oinarriak aplikatzeko eta interpretatzeko, kontuan hartu behar da araudi hau arautzen duen lege esparrua:

- EBAZPENA, 2014ko uztailaren 30ekoa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Horren bidez argitara ematen da ekintzaileentzako laguntzen deialdia.
- Diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege orokorra (azaroaren 18ko EAO).

- Diru laguntzei buruzko Lege orokorraren araudia onesten duen ekainaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua (uztailaren 25eko EAO).
- Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Testu Bateginean –1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, onartzen duena– eta 698/1991 Dekretuan, abenduaren 17koan, ezarritako diru-laguntzen erregimen juridikoa izango da aplikagarri, horrek arautu baitzuen Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kargurako diru-laguntzen bermeen eta itzulketen araubide orokorra eta bertan ezarri baitziren horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileen eskakizunak, araubidea eta betebeharrak.

Behargintza Txorierri, SLren zuzendaritza nagusiaren eskumena izango da Oinarriak nahiz horietatik eratorritako dokumentu guztiak interpretatzea eta horietan ezarritakoa betetzeko zalantzak ebaztea.

4. Laguntzen onuradunak.

Oinarri honetan aurreikusitako laguntzen onuradunak izan ahalko dira eskabidea aurkezteko unean eskakizun hauek betetzen dituzten ekintzaileak:

- EAEn erroldatuta egotea eta zinezko egoitza izatea.
- Langabea izatea eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan lan-eskatzaille gisa izena emanda egotea.
- Bideragarritasun plan bat izatea enpresa edo negozio berri bat abian jartzeko, zeina dagokion erakunde laguntzaileak balioztatu beharko baitu laguntza-fasearen barruan.
- EGAZ Txorierri enpresa-ezarpenera aholkatzeko eta laguntzeko prozesu batean egotea.
- Enpresa-jarduerak EAEn izan beharko du helbide soziala eta fiskala, eta lantokia ere egon beharko da EAEn.

Laguntza horien onuradunak izateko, hauxe egiteko konpromisoa hartu behar dute sustatzaileek:

- Enpresa edo negozioak abian jartzen jardutea bakarrik.
- EGAZ Txorierri enpresa edo negozioa ezartzeko zehaztutako aholkularitzako eta laguntzako jarduera guztietara joatea.
- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta ematea gehienez 3 hilabeteko epean, negozioa abian jartzeko diruz lagundutako tutoretza eta laguntzako prozesua amaitzen denetik zenbatzen hasita.
- Beste laguntzarik ez jasotzea xede horretarako

Ekintzaileek ez badute JEZen altarik ematen adierazitako epean, galdu egingo dute diru-laguntzaren bigarren ordainketa jasotzeko eskubidea.

Honako hauek ez dituzte jasoko deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzak: zigor- eta administrazio-arloko diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzarekin zigortuta dauden pertsona fisikoak eta horretarako ezgaitzen duten legezko debekuen eraginpean daudenenek. Halakoetan aipatu behar dira Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen, otsailaren 18koaren, arabera sexu-diskriminazioarengatik gertatutakoak

Bestalde, onuradunei ordainketa egin baino lehenago, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta bere erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntza edo diru-laguntzen esparruan hasi eta oraindik izapideetan dagoen itzultzeko edo zehatzeko edozein prozedurak bukatuta egon beharko du.

5. Laguntzaren zenbatekoa

Sustatzaileei enpresa-proiektu berriak abian jartzeko eman beharreko laguntzek honako zenbateko hauek izango dituzte gehienez:

- 2.000 euro sustatzaileak 18 urte baino gehiago eta 25 urte baino gutxiago baditu eskabidea ofiziala aurkezten duenean.
- 1.500 euro sustatzaileak gutxienez 25 urte baditu eskabidea ofiziala aurkezten duenean.

Oinarri honetan araututako laguntzen eskabideak aurkezteko 7 egun balioduneko epea egongo da, laguntzako prozesua hasi ondoko egunetik aurrera zenbatuta(urriaren 30ean).

6. Eskabideak, dokumentazioa eta horiek aurkezteko epea.

a) Aurkezteko epea:

Laguntzen eskaerak, eskatutako dokumentazioarekin batera, oinarri hauek argitaratzen direnetik 2014ko urriaren 27ko 13:30era arte aurkeztu ahal izango dira.

Dagozkion eskabideak eta agiriak urkez daitezke:

- EGAZ Txorierri,(Txorierri Etorbidea, 46- 13 A, Sondika), astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 13:30era.
- Erandioko Behargintzan(Desanexion kalea 4 ,Erandio) astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 13:30era.

b) Aurkeztu beharreko dokumentuak :

- Eskabidea, I.Eranskinean jasotako ereduaren arabera.
- NANaren fotokopia
- Enpresaren bideragarritasun-plana (halakorik balego).
- EAEko errolda-ziurtagiria
- Lanbide- Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaile gisa denboraldi bat igaro izana egiaztatzen duen agiria (Lanbideren bulegoetan eskatzen da).

Eranskinak dokumentu honen amaieran eta www.txorierri.eu webgunean jaso dira.

7. Laguntzak emateko prozedura

- Eskaerak aurkezteko epea amaitzen denean, EGAZ Txorierri (Behargintza Txorierri, SL) emango ditu ebazpenak.
- Behargintza Txorierri, SLk ez ditu onartuko deialdi honetan ezarritako betekizunak betetzen ez dituzten eskaerak.

- Laguntzak urriaren 28an egingo den zozketan esleitu dira, Lanbidek azkenean Behargintza Txorierri, SLri esleitutako funtsen banaketaren bitartez eta aurrekontu-kreditua amaitu arte, betiere deialdi honetan exijitutako betekizunak betetzen badituzte.
- Behargintza Txorierri, SLk eskaerak gaitzetsiko ditu dagokion partidako kreditua amaitzen denean.

8. Laguntzak ordaintzea

EGAZ Txorierri (Behargintza Txorierri) honela ordainduko diete diru-laguntza onuradunei:

- Emandako diru-laguntzaren % 50, hura emandakoan, bideragarritasun-plana osatu eta enpresa-proiektua ezartzeko aholkularitza-prozesua hasi ondoren.
- Gainerako % 50a, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan (JEZ) alta eman ondoren,

Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuak tokiko ekintzaileen proiektuen esparruan enpresa-jarduera berriak sortzea sustatzeko eta sustatzaileak babesteko laguntzak kudeatzeko jarritako funtsak Behargintza Txorierri, SLk jasotzen dituztenean eta onuraduna aurkezten denean egingo da ordainketa.

- Lehenengo ordainketarako, eskatutako laguntza esleitu dela adierazten duen Lanbideren jakinarazpena.
- Bigarren ordainketarako, JEZren altaren kopia, laguntza amaitzen denetik gehienez ere 3 hilabetera, eta Amaierako memoria. Bertan zehaztuko dira egindako jarduerak.

9. Laguntzaren justifikazioa

Oinarri hauetan aurreikusitako laguntzen onuradunek, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergako (JEZ) altaren kopia aurkeztu beharko dute EGAG Txorierriari, eta horrekin batera, baita egindako jarduerak zehazten dituen amaierako memoria ere. Horretarako hiru hilabeteko epea dute gehienez, laguntzako prozesua amaitzen denetik hasita. baliozkotu behar du memoria hori, eta haren edukiak lan-planaren zein lortutako emaitzen planaren jarraipena egitea ahalbidetu behar du.

EGAG Txorierri Lanbideri igorriko diote aipatutako informazioa Europako Gizarte Funtsaren baldintzak betetzeko eskatzen zaien gainerakoarekin batera.

Diru-laguntza aurreikusitako epeen barruan justifikatu ezean, jasotako diru-laguntza guztia itzuli beharko dute onuradunek; horrenbestez, artikulu honetan justifikatzeko aurreikusitako epeak amaitzen badira berau gauzatu gabe, dagokion prozedurari ekingo zaio jasotako zenbatekoak itzuli beharra adierazteko eta ordaintzeke daudenak eskuratzeko eskubidea galdutzat jotzeko

10. Onuradunen betebeharrak

Onuradunaren betebeharrak izango dira 1/1997 Legegintzako Dekretuak, azaroaren 11koak, onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50.2. artikuluan jasotakoak, eta, bereziki, honako hauek:

- Oinarri hauetan ezartzen diren baldintza guztiak betetzea.

- Behargintza Txorierri, SLri laguntza honen kargura jasotzeko diru-laguntzei dagokien fiskalizazio-funtzioen ekitaldian eskatutako informazioa ematea.
- Behargintza Txorierri, SLri jakinaraztea beste laguntza batzuk jaso diren, oinarri hauetan adierazitako kontzeptu berengatik

11. Diru-laguntza aldatzea

Diru-laguntza emateko kontuan hartutako baldintzetan aldaketarik gertatuz gero, emandako diru-laguntza aldatu ahal izango da, betiere deialdi honetan diru-laguntzen onuradun izateko ezarritako gutxieneko eskakizunei eutsiz. Baldintzen aldaketa horren ondorioz diru-laguntza osoa edo zati bat itzuli behar bada, itzultzeko prozedurari hasiera emango zaio.

12. Beste diru-laguntza edo laguntza batzuekiko bateragarritasuna

Deialdi honetan aurreikusitako laguntzekin batera ezin da eskuratu kontzeptu eta helburu berengatik beste diru-laguntza, laguntza edo diru-sarrerarik, horrelakoak beste administrazio batzuek edota erakunde publiko edo pribatu batzuek emanak izan.

13. Ez-betetzeak eta emandako diru-laguntzak itzultzea

Deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzen onuradunak Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 53.1 artikuluan aipatzen diren kasuetako batean badaude, edo deialdi honetan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez badute, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak ebazpen bat emango du; ebazpen horren bitartez, jasotako kopuruak osorik edo zati batean itzuli behar dituztela adieraziko du, eta kopuru horiei diru-laguntza ordaintzen den unetik aurrerako legezko interesak erantsi beharko zaizkie, dagozkion gainerako ekintzak aparte utzi gabe, hala xedatuta baitago 698/1991 Dekretuan, abenduaren 17koan, horrek arautzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kargurako diru-laguntzen bermeen eta itzulketen araubide orokorra.

Tutoretzako prozesua aldeztatik utziz gero, horren zergatia edozein dela ere, haxe izango da emandako diru-laguntza itzultzeko araubidea:

- Prozesua hasi eta hilabete igaro aurretik utziz gero, jasotako diru-laguntza osorik itzuli beharko du, eta egin gabe dauden ordainketak ezeztatuko dira, horrelakorik badago
- Prozesua bigarren hilabetea amaitu aurretik utziz gero, 500 euro 25 urte edo gehiago dituen ekintzaile bat bada, eta 667 euro 25 urte baino gutxiagoko ekintzaileen kasuan. zenbateko hauek itzuli beharko ditu. Horrez gain, ordaintzeke dagoen diru-laguntzaren bigarren zatia jasotzeko eskubidea ere galduko du.
- Hirugarren hilabetean, laguntza eta/edo tutoretzako prozesua amaitu aurretik, utziz gero, zenbateko hau itzuli beharko du: 250 euro 25 urte edo gehiago dituen ekintzaile bat bada, eta 333 euro 25 urte baino gutxiagoko ekintzaileen kasuan. Horrez gain, ordaintzeke dagoen diru-laguntzaren bigarren zatia jasotzeko eskubidea ere galduko du.

Diru-laguntza ordaintzen denetik egokiak diren legezko interesak aplikatuko zaizkie itzuli beharreko zenbatekoei..

Nolanahi ere, prozesua utzi arte egindako jardueri buruzko memoria aurkeztu beharko da. Horrela egin ezean, diru-laguntza ez dela justifikatu joko da mantendutako zenbatekoari dagokionez, eta 9. Artikuluan (Laguntzaren justifikazioa) xedatutakoa aplikatu beharko da; horrenbestez, diru-laguntza osorik itzuli beharra egongo da.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak abiaraziko du itzultzeko prozedura, eta idazkia bidaliko dio laguntzaren onuradunari, ez-betetzea eragin duen edo duten gertaeraren edo gertaeren berri emateko. Hori ez ezik, egokitzen jotako alegazioak edo egiaztagiria aurkezteko hamabost eguneko epea duela ere jakinaraziko dio. Prozedura hori hasten denean, eten egingo dira egiteko dauden ordainketak, halakorik egonez gero.

Alegazioak aurkezteko epea igarotakoan halakorik aurkeztu ez badu edo onartu ez badira, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiak ebazpena emango du. Diru-laguntzak itzultzeko prozedura ebazteko epea gehienez 12 hilabetekoa izango da.

Ebazpenak arauen bat bete gabe utzi dela iritzi, eta diru-laguntza osorik edo zati bat jasotzeko eskubidea galdutzat emanez gero, interesdunak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko dizkio dagozkion diru-kopuruak; horretarako, bi hilabeteko epea izango du, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hasita. Epe hori borondatezko epeztat joko da.

Borondatezko aldiaren itzulketarik egiten ez bada, itzuli beharrekoak premiamendu bidez berreskuratzeko izapideak hasiko dira.

14. Aurrekontua esleitzea

Behargintza Txorierri, SLk 25.000 euroko gehienezko zenbatekoa jarriko du, oinarri hauetan definitutako enpresa jarduera berriak martxan jartzea sustatzeko laguntzen kontzeptu gisa.

- 10.000 euro 18 urte baino gehiago eta 25 urte baino gutxiago dituzten sustatzaileentzat.
- 15.000 euro 25 urte edo gehiago dituzten sustatzaileentzat.

Oinarri hauen bitartez lor daitezkeen laguntzen behin betiko zenbatekoa aldatu egin daiteke, Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuaren ebazpenaren arabera.

Nolanahi ere, diru-laguntzen behin betiko zenbatekoa Egaz Txorierriren webgunean (www.txorierri.eu) jakinaraziko da, ebazpena ezagutarazten denean.

15. Programaren indarraldia eta garapena

Oinarri hauek aplikatuko zaizkie oinarriak argitaratzen direnetik programa amaitu arte aurkeztu diren eskaerei, programa justifikatu ondoren, bere ebazpen arautzailearen esparruan (2014ko uztailaren 30eko Ebazpena, 2014ko abuztuaren 25eko 159 zenbakiko EHAA).

16. Baliabideak

Emakida suntsiarazteak administrazio bidea amaitzen du. Hala ere, horren aurka berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, ebazpena eman duen organoaren aurrean hilabeteko epean, suntsiaraztearen jakinarazpena jasotzen den egunaren biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

17. Datu pertsonalak babestea **Protección de datos de carácter personal**

Urriaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera, Behargintza Txorierri, SLk jakinarazi du oinarri hauek bideratzean sortzen den dokumentazioan jasotako datu pertsonalak Behargintza Txorierri, SLren titulartasuneko fitxategi batera gehituko direla, kontrataziorako laguntzen deialdi hau kudeatzeko.

Nolanahi ere, interesdunak horren berri izan du, eta ados dago bai bere datuak aipatutako helbururako erabiltzearekin, bai aholkularitzei, erakunde publikoei, fundazioei, elkarteei edo finantza erakundeei lagatzearekin, enplegu politika aktiboak, lan merkatuko bitartekotza eta lan merkatuaren azterketak eta analisiak kudeatzeko.

18. Emandako diru laguntzak argitaratea

Behargintza Txorierri, SLk bere webgunean (txorierri.eu) argitaratuko ditu emandako diru laguntzak.

Sondikan, 2014.eko irailak 25

D. ALEJANDRO LOUSTAUNAU MARTÍNEZ

GERENTEA

I.ERANSKINA – ESKAERA

TOKIKO EKINTZAILEEN PROIEKTUEN ESPARRUAN ENPRESAIDEIA BAT GARATZEKO LAGUNTZETARAKO LANBIDE- EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAREN DEIALDIAN PARTE HARTZEKO ESKABIDEA (2014ko ABUZTUAREN 25eko 159 EHAA)

.....jaunak/andreakNAN zenbakiaduenak,

bere izenean eta honako helbide eta telefono-zenbaki hauek dituenak

.....

PK:.....udalerrria.....telefono-zenbakia.....

BERE ERANTZUKIZUNPEAN ADIERAZTEN DU:

- Ezagutzen duela tokiko ekintzaileen proiektuen esparruan enpresa-jarduera berriak sortzea bultzatzeko laguntza-proiektuen oinarri arautzaileen edukia.
- Aipatu oinarrietan ezartzen diren betekizun eta betebeharrak guztiak betetzen dituela, eta beren-beregi bere egiten dituela horietan agertzen diren betekizun guztiak.
- Tokiko ekintzaileen proiektuen esparruan enpresa-jarduera berri bat sortzeko aholkularitza/tutoretza diruz laguntzeko aipatu laguntzen deialdian parte hartzea eskatzen duela.
- Hitzematen duela arduraldi esklusiboan ariko dela enpresa-negozioa sortzen.
- Hitzematen duela enpresa edo negozioa ezartzeko EGAZ Txorierriko definitutako aholkularitza- eta laguntza-jarduera guztietara bertaratuko dela.

Eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- Eskabidea, I.Eranskinean jasotako ereduaren arabera.
- NANaren fotokopia
- Enpresaren bideragarritasun-plana (halakorik balego).
- EAEko errolda-ziurtagiria.
- Lanbide- Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaile gisa denboraldi bat igaro izana egiaztatzen duen agiria (Lanbideren bulegoetan eskatzen da).

.....-n, 2014korenan

Sinatuta: